

EEMAKUMEEN ETA GIZONEN ARTEKO AUKERA BERDINTASUNEN UDAL KONTSEILUAREN ESTATUTUAK

1. KAPITULUA.- XEDAPEN OROKORRAK

1. artikulua.- Izendapena/Izaera

1. Berdintasunaren aldeko Atarrabiako udal kontseilua izaera aholku-emailea eta informatzailea duen parte-hartze organoa da. Honen helburua da, herriko emakume-gizonen parte-hartze demokratikoa bermatzea emakume-gizonen aukera berdintasunen eta tratua ren printzipioaren garapenean eta indartzean, herriko politikaren, kulturaren, ekonomiaren eta gizartearen arloetan.

2. Kontseiluak funtzionamendu-autonomia izanen du udal korporazioarekiko. Aitortu egiten zaizkio, halaber, legezketasun eta lidergo nahikoa berdintasun-politikaren inguruko asmoak eta proposamenak helarazteko esparrua bihur dadin, eta udal erakunde ezberdinei proposamenak, aholkuak eta diktamenak luzatzeko, bere eskumeneko gaietako ildoen norabideak finkatuko dituztenak.

3. Osoko Bilkurako bileretara joaten diren Kontseiluko ordezkariak ez dute funtzio hauetan jarduteagatik ordainsaririk jasotzeko eskubiderik izango.

4. Kontseilua araudi honi jarraiki eta unean-uneko indarrean dagoen herritarren parte-hartze araudiari jarraiki zuzenduko da.

2. artikulua.- Aplikazio esparrua

Berdintasunaren Udal Kontseiluaren aplikazio esparrua Atarrabiako herria da.

2. KAPITULUA.- XEDEA

3. artikulua.- Hauexek dira Atarrabiako Berdintasun Kontseiluaren xede funtsezkoak:

1. Atarrabiako Berdintasunaren 2. Plana abian jartzea, sustatzea eta dinamizatzea.

2. Emakumeentzako parte-hartze gune bat eskaintzea, modu zuzenean zein haiek ordezkaturiko dituzten elkarte edota erakundeen bitartez, betiere emakumeen parte-hartze aktiboa bermatuz, berdintasun arloko udal politiketan erabakiak hartzeko orduan.

3. Emakumeen gizarte-statusa indartzea. Hartara, hauen protagonismoa sendotu beharko da gizarte berdintasunezkoagoa diseinatzeko garaian.

4. Emakumeen mugimendua aitortzen laguntzea, hauen eskubideak defendatzea eta hauen parte-hartze eraginkorra sustatzea jarduera esparru eta bizitzaren eremu ezberdinetan.

5. Sustatzea, emakumeen parte-hartzea eta emakume-gizonen berdintasunarekin zerikusia duten politika publikoen sustapenean esku-hartzeko gaitasuna.

6. Sustatzea, emakume-gizonen aukeren eta tratuaeren berdintasuna sustatzen duten aktibitateak egiten dituzten elkarten eta gainerako erakundeen arteko kooperazioa eta lankidetzak.

7. Zaintzea, udal politikiek zein zerbitzuek emakume-gizonen berdintasuna berma dezaten.

8. Zaintzea, aukeren eta tratuaeren berdintasuna eraginkorra izan dadin eta emakume guztiengan ezar dadin inolako bazterkeriarik gabe.

3. KAPITULUA.- FUNTZIOAK

4. artikulua. Berdintasun Kontseiluaren funtzioak

4.1.- Aurreko artikuluan zehaztutako helburuak erdiesteko, Berdintasunaren Atarrabiako Kontseiluak segidako funtzioak izanen ditu:

- Emakumeen eskubideak defendatzea eta zabaltzea (politikoak, zibilak, sozialak, ekonomikoak eta kulturalak).
- Atarrabiako emakumeen elkarten eta erakunde ezberdinen eta Udalaren arteko solaskidetzarako eremua izatea, bere eskumeneko gaietan.

Horretarako, Berdintasunaren Batzordeak informazioa eman beharko du Udalak garatzen dituen berdintasun politiken inguruan, eta Kontseiluaren eskura beharrezko baliabide guztiak utziko ditu honek funtzioak garatu ahal izateko dinamika egokia bermatzeko.

Ondoren, eta ahal den neurrian, arlo honetan Udal Gobernuak aurreikusitako jarduerak jendaurrean paratuko dira interesatuek bere iritzia eman dezaten. Eztabaida eta ideiak azaltzea bultzatuko da, azkenean, jarduera proposamenak egin ahal izateko.

- Berdintasunaren Batzordearekin elkarlanean aritzea, berdintasun planen lanketa, aplikazioa, betetze-maila, eta ebaluazioa zuzenduko dituzten lehentasunak eta irizpideak zehazteko orduan. Betiere, plan hauek kalitatezkoak, eraginkorrak eta gardenak izan daitezen zainduko da.
- Administrazioari neurriak proposatzea eta iradokizunak egitea, berdintasunaren arloan helburuak bete daitezen, txostenak, diktamenak, proposamenak luzatuta eta bere kabuzko edota hala eskatzen zaionean eskaerak eginda.
- Kontseiluaren aktibitateen urteko plana sustatzea eta lantzea ikasturte bakoitzaren hasiera.
- Sustatzea, sexuarengatiko edota generoarengatiko diskriminazioaren arloari lotutako ikerketak eta txostenak egitea; eta halaber, bideratzea, Kontseiluan ordekaritzarik ez duten elkarte, erakunde edota taldeetatik datozen emakume-gizonen berdintasunaren inguruko ekimen, iradokizun, eskakizun eta eskaerak.
- Komunikazioa, harremanak eta hartu-emana bultzatzea, emakume-gizonen aukera berdintasunaren sustatzea eta

politikaren, kulturaren, ekonomiaren eta gizartearen esparruan genero-indarkeriaren prebentzioa eta honi aurre egitea helburu duten emakumeen elkarleen artean.

- Bideratzea, organo eskudunen aurrean, Kontseiluaren jakinaren gainean jarritako portaera diskriminatzaileengatik salaketak oro.
- Informazioa ematea, aldizka, Kontseiluaren jarduera, aktibitate, informazio eta agiri guztiei buruz.
- Bere kargu utzi ahal zaizkion bestelako funtzioak, emakumeekin zerikusia dutenak.

4.2.- Funtzio hauek aurrera eramanez ahal izateko, kontseiluak Udaleko berdintasun-agenteari aholkua izanen du.

4.3.- Kontseiluak landu eta onartutako Planean jasotako aktibitateak garatu ahal izateko Berdintasun Zerbitzuak dagokion diru-hornidura zehaztuko du bere aurrekontu-proiektuan, kontuan hartuta udaleko aurrekontu orokorrean Arloari egokitutako diru-kopuruak eta xede honetarako Nafarroako Foru Gobernuaren diru-laguntza larroak.

4. KAPITULUA. **OSAKETA**

5. artikulua

1. Segidako pertsonak osatzen dute Udaleko Berdintasunaren Kontseilua:

- a. Kontseiluburua: Alkatea edo alkatesa edota honek eskuordetutako zinegotzia.
- b. Kontseiluburu orde: Kontseiluko kide izaki udal Korporazioko kide ez den edozein pertsona.
- c. Idazkaria: Udaleko Aukera Berdintasunaren Agentea.
- d. Kontseilu-kideak:
 - Agintean ez dauden udal talde bakoitzeko zinegotzi bat.
 - Erakundeen Udal Erregistroan inskribaturiko eta euren lehentasunezko jarduera arlo horretan duten erakundeetako kide bat. Kontseiluan parte hartu ahal izateko, erakundearen batzarren nahi hori adierazten duen akordioa beharko da.
 - Zozketa bidez aukeratutako bi pertsona fisiko, udal-eroldan inskribaturiko pertsona interesatuen zerrendatik hartuko direnak. Kontseiluaren Batzarrean bi pertsona sartuko dira.
 - Ordezkaritza eta garrantzia berezia duten 2 pertsona, Alkateak edota Berdintasun Batzordeko pertsona edozeinek proposatua eta batzorde horretako gehiengo soilak onartua.

Kontseilu-kide ordezkari bakoitzeko ordezeko bat izendatu beharko da.

2. Ordezkari hauek guztiak Berdintasunaren Udal Kontseiluko eskubide osoko kideak dira, ahots eta botoarekin, idazkaria izan ezik, honek ahotsa izanen du baina ez boto-eskubiderik.

6. artikulua

Landu behar diren gaiengatik Kontseiluak egoki irizten duenetan, euren aholkuekin Kontseiluaren helburuak erdiesten lagun dezaketen pertsonak edota ordezkariak gonbidatu ahalko ditu. Pertsona hauek ahotsa izanen dute baina botorik ez.

7. artikulua

Kontseiluko pertsona ordezkariak, euren ordezekoak bezalaxe, entitate, elkarte, erakunde et atalde politiko ezberdinek proposatuta sartuko dira Kontseiluan.

5. KAPITULUA.- FUNTZIONAMENDUA

8. artikulua

Funtzioak, Berdintasunaren Udal Kontseiluan betetzen den karguaren arabera:

1. Lehendakaritza.
2. Lehendakaritza-ordea.
3. Idazkaritza.

9. artikulua - Lehendakaria.

1. Alkate-alkatesa izanen da Kontseiluko berezko lehendakaria; ordea, benetako lehendakaritza Berdintasunaren Udal Batzorde Informatzailearen buru den zinegotziaren esku utzi ahalko du.
2. Bere egitekoak hauek dira:
 - a. Kontseiluaren berezko helburuak bete daitezen arduratzea eta honen ordezkari itatea.
 - b. Kontseiluaren saiok deitzea, eztabaiden nondik norakoa bideratzea eta moderatzea eta saiok bertan behera uztea, hori egiteko arrazoiak daudenean.
 - c. Berdintasun Kontseiluaren saioren gai-ordena zehaztea, kontuan hartuta Kontseiluko kideek egin eskaerak eta Estatutu hauetan ezarritako modua.
 - d. Kontseiluak hartutako akordioak bete daitezen agintzea.

- e. Kotsentsuaren bidea amaiturik, bozketetan eman daitezkeen berdinketak, kalitatezko bere bozarekin erabakitzea.
- f. Udaleko dagokion organoetan Kontseiluaren proposamenak aurkeztea.

10. artikulua - Lehendakari-ordea.

1. Kontseiluak Lehendakari-orde bat izanen du, Kontseiluko eskubide osoko kideen artean aukeratuko dena.
2. Bere egitekoak hauek dira:
 - a. Lehendakariaren ordezkoa izatea, lehendakari postua bete gabe badago edota lehendakaria bertan ez edo gaixorik badago.
 - b. Kontseiluko Lehendakariak espresuki bere esku uzten dituen funtzioak betetzea.
 - c. Lehendakariarekin elkarlan estuan aritzea, honek Kontseiluaren baitan dituen funtzioak bete daitezten.

11. artikulua - Kontseiluaren Idazkaria.

3. Idazkariak egitekoak hauek dira:
 - a. Organoaren bileren deialdiak egitea, lehendakariaren aginduz. Halaber, kontseiluko kideak deitu beharko ditu.
 - b. Kontseiluko kideek organoarekiko dituzten komunikazioak jasotzea; hortaz, jakinarazpenak, datu-eskaerak, zuzenketak edota berak ezagutu beharko lituzkeen edonolako gainerako idazkiak.
 - c. Gaiak lantzea, aktak idaztea, ondorengo bileretan berretsiko direnak.
 - d. Kontseiluaren agiriak zaintzea.
 - e. Solaskide baliozkoa izatea Atarrabiako Udalaren eta berdintasunaren arloko gaien inguruan udalerriko organo aholku-emaile gainerakoen aurrean.

12. artikulua - Berdintasunaren Kontseiluaren deitzea

1. Kontseiluko Batzarra da Kontseiluaren borondatearen organo erabakitzailea eta osatzailea. Eskubide osoko kide guztiek osatzen dute eta Lehendakariaren zuzendaritzapean daude. Funtzionatzeko orduan Estatutu hauetan ezartzen diren arau eta eskumenei jarraiki arituko da.
2. Berdintasunaren Kontseilua, gutxienez, hiru hilean behin bilduko da saio arruntean. Aparteko bilera kondoko kasuetan egingen ditu:
 - a. Lehendakariaren erabakiz.
 - b. Kideen %50ak eskatzen badu.

3. Kontseilua modu baliozkoan osatuko da lehen deialdian, bere kideen legezko kopuruaren gehiengo absolutua bertan denean. Kontseiluaren bilerak jendaurrekoak izanen dira.

Lehen deialdian beharrezko quorumik ez balego ulertuko da bilera hogeita hamar minutu beranduago deituko dela, automatikoki. Bigarren deialdian bilera baliozkoa izanen da, bertaratuen kopurua edozein delarik. Lehen deialdian zein bigarrenean, nahitaezkoa izanen da Lehendakaria eta Idazkaria, edota hauek legez ordezkatzan dituzten pertsonak bertan egotea. Lehendakaria eta Idazkaria edota hauen ordezkoak bilerak irauten duen denboran bertan izan beharko dute.

Lehendakariak finkatuko du bileren egutegia. Bileren deialdiak, gai-ordena barne, hauek egin baino hamar egun natural aurretik egin beharko dira. Aparteko deialdiak hirurogeita hamabi ordu lehenago deitu beharko dira, kideei honen berri emanez. Jakinarazpen hauetan, tokia, eguna, lehen eta bigarren deialdien ordua eta gai-ordenaren proposamena agertuko dira.

4. Kontseiluaren akordioak kideen gehiengo soilaz hartuko dira. Ez dira ordezkaturiko bozak onartuko.
5. Behin Kontseiluaren saioa irekita, izandako azken saioaren akta irakurriko da, onartu edota zuzendu ahal izateko. Idazkariak ez bertaratuak aipatuko ditu eta aktan jasoko hauek aurkezturiko arrazoiak; ondoren, gai-ordenari helduko zaio.

13. artikulua – Kontseiluko kideen eskubideak eta betebeharrak.

1. Kontseiluko kideen eskubideak:
 - a. Egoki irizten dituzten gaiak Kontseiluetako gai-ordenetan sartzea eskatzea.
 - b. Deitutako bileretara joatea, eztabaidetan parte hartzea, galde-erreguak egitea eta boza ematea, organoaren Idazkariak izan ezik, honek hitza besterik ez baitu izanen.
 - c. Informazio egokia jasotzea, esleitutako egitekoak ongi bete ahal izateko.
2. Kontseiluko kideen betebeharrak:
 - a. Deitutako bileretara bertaratzea.
 - b. Bozkatzeari utzi, lantzen diren gaiak ordezkatzan dituzten elkarten interes partikularrei ukitzen dietenean.
 - c. Konfidentziasuna gordetzea, gaiaren izaerak hala eskatzen duenean.

14. artikulua - Kontseiluko kideen kargu-uztea.

1. Kontseiluko kideen kargu-uztea ondoko arrazoiengatik emana daiteke:

- a. Interesatuak espresuki karguari uko egiteagatik. Honen berri, ordezkatzeko duen elkarte edota organoari eta Kontseiluaren Idazkariari eman beharko dio.
- b. Jarduteko gaitasunari eragiten dion edota edozein kargu publiko izateko ezgaitzen duen epai-ebazpena medio.
- c. Udal Korporazioaren agintaldia amaitzeagatik, ordezkaritza politikoa duten kideentzako.
- d. Zendu izanagatik, gaixotasunagatik edota baliaezintasunagatik.
- e. Ordezkatzen duten erakundea desegiteagatik.

XEDAPEN GEHIGARRIAK

Lehena: Estatutu hauek erabat edota zati batean aldatzea, eta halaber, Berdintasunaren Udal Kontseiluaren desegitea, Udalbatzari dagokio bakar bakarrik, Kontseiluaren Batzarraren diktamena entzun ondoren.

AZKEN XEDAPENAK

Lehena: Estatutu hauetan aurreikusi gabekoan, Toki-erregimeneko Araudian eta Sektore- eta Lurralde-kontseiluen Araudian ezarritakoari jarraituko zaio.

Bigarrena: Estatu hau indarrean sartuko da, Udalbatzak behinbetikoz onartu eta gero, indarrean dauden legezko araei jarraiki.

ESTATUTOS DEL CONSEJO MUNICIPAL DE LA IGUALDAD DE OPORTUNIDADES ENTRE MUJERES Y HOMBRES

CAPÍTULO 1. DISPOSICIONES GENERALES

Artículo 1. Denominación/Naturaleza

1. El consejo municipal para la igualdad de Villava-Atarrabia constituye un órgano de participación, de carácter consultivo e informativo, que tiene como objeto garantizar la participación democrática de mujeres y hombres del municipio en el desarrollo e impulso del principio de igualdad de oportunidades y trato de mujeres y hombres en los diferentes ámbitos de la vida política, cultural, económica y social del municipio.

2. El consejo gozará de autonomía funcional con respecto a la corporación municipal. Se le reconoce, asimismo, la legitimidad y el liderazgo suficiente para que se convierta en un espacio al que hacer llegar aspiraciones y propuestas sobre políticas de igualdad, y que pueda emitir propuestas, recomendaciones y dictámenes a las diferentes entidades municipales que sirvan para orientar las líneas o directrices generales en materia de su competencia.

3. Las personas con representación en el Consejo que asistan a las reuniones del Pleno no tendrán derecho a remuneración por el ejercicio de sus funciones.

4. El consejo se regirá por el presente reglamento y por el reglamento de participación ciudadana vigente en cada momento.

Artículo 2. Ámbito de aplicación

El ámbito de actuación del Consejo Municipal de la Igualdad es el municipio de Villava-Atarrabia.

CAPÍTULO 2. FINALIDAD

Artículo 3. Son fines esenciales del Consejo de Igualdad de Villava-Atarrabia los siguientes:

1. Impulsar y dinamizar la puesta en marcha del 2º Plan de Igualdad de Villava-Atarrabia.

2. Ofrecer un espacio para la participación de las mujeres, tanto directamente como a través de las asociaciones y entidades que las representen, garantizando la participación activa de éstas en el proceso de toma de decisiones de las políticas municipales relativas a la igualdad.

3. Fortalecer la posición social de las mujeres, reforzando el protagonismo de las mismas en el diseño de una sociedad más igualitaria.

4. Contribuir al reconocimiento del movimiento de mujeres, defender los derechos de éstas y promover su efectiva participación en los diferentes ámbitos de actividad y espacios de vida.

5. Fomentar la participación de las mujeres y su capacidad de intervención en la promoción de las políticas públicas relacionadas con la igualdad de mujeres y hombres.

6. Fomentar la cooperación y colaboración entre las asociaciones y demás entidades que lleven a cabo actividades de promoción de la igualdad de oportunidades y trato de mujeres y hombres.

8. Velar por que las políticas y los servicios municipales garanticen la igualdad de oportunidades de mujeres y hombres.

9. Velar para que la igualdad de oportunidades y de trato sea efectiva y se aplique a todas las mujeres sin exclusión de ningún tipo.

CAPITULO 3. FUNCIONES

Artículo 4. Funciones del Consejo de la Igualdad

4.1.- Para la consecución de los fines señalados en el artículo anterior, el Consejo de la Igualdad de Villava-Atarrabia desarrollará las siguientes funciones:

- Defender y divulgar los derechos (políticos, civiles, sociales, económicos y culturales) de las mujeres.
- Servir como espacio de interlocución entre las diferentes asociaciones y entidades de mujeres de Villava-Atarrabia y el Ayuntamiento en lo referente a asuntos de su competencia.

Para ello, la Comisión de Igualdad deberá informar de las acciones del Ayuntamiento en relación a las políticas de igualdad, y pondrá a disposición del Consejo todos los instrumentos necesarios para garantizar una buena dinámica para el desarrollo de sus funciones.

Posteriormente, en la medida de lo posible, se abrirá a consulta las actuaciones previstas por el Gobierno Municipal en éste ámbito, facilitando el debate y el contraste de ideas para, por último, poder formular propuestas de actuación.

- Colaborar con la Comisión de Igualdad en la definición de prioridades y criterios que han de regir en la elaboración, aplicación, nivel de ejecución y evaluación de los planes de igualdad, velando por la calidad, eficacia y transparencia de los mismos.
- Proponer medidas y formular sugerencias a la Administración para el cumplimiento de los objetivos en materia de igualdad, mediante emisión de informes, dictámenes, propuestas y peticiones por iniciativa propia o cuando les sea solicitada.
- Promover y elaborar un plan anual de actividades del Consejo al inicio de cada curso.
- Promover la realización de estudios e informes vinculados al ámbito de la discriminación por razón de sexo y/o género, así como canalizar las distintas iniciativas, sugerencias, demandas y peticiones, en relación con la igualdad entre mujeres y hombres, provenientes de asociaciones, entidades o colectivos no representados en el Consejo.

- Impulsar la comunicación, relación e intercambio entre las asociaciones de mujeres, que tengan como fin la promoción de la igualdad de oportunidades entre mujeres y hombres, y la prevención y actuación ante la violencia de género en el ámbito político, cultural, económico y social.
- Canalizar ante los órganos competentes cuantas denuncias de conductas discriminatorias sean puestas en conocimiento del Consejo.
- Informar periódicamente sobre todas las actuaciones, actividades, informaciones y documentos del Consejo.
- Cualesquiera otras funciones relacionadas con las mujeres que pudieran encomendársele.

4.2.- Para poder desarrollar estas funciones, el consejo contará con el asesoramiento técnico de la agente en igualdad del Ayuntamiento.

4.3.- Para poder desarrollar las actividades contenidas en el Plan elaborado y aprobado por el Consejo, el Servicio de Igualdad incluirá en su proyecto de presupuesto las dotaciones correspondientes, teniendo en cuenta las cantidades asignadas en el presupuesto general municipal para el Área y la línea de subvenciones de Gobierno Foral de Navarra para este fin.

CAPÍTULO 4. COMPOSICIÓN

Artículo 5.

5.1. Componen el Consejo Municipal de la Igualdad las siguientes personas:

5.1.1.-Presidente o Presidenta: El Alcalde o Alcaldesa o Concejala o Concejál en quien delegue.

5.1.2.-Vicepresidente o Vicepresidenta: cualquiera de las personas que pertenecen al Consejo y que no sea componente de la Corporación Municipal.

5.1.3.-Secretario o Secretaria: Agente en Igualdad de Oportunidades Municipal.

5.1.4.-Vocales:

- . Un Concejál o una Concejala de cada uno de los grupos municipales no gobernantes.
- . Una /un representante de las entidades inscritas en el Registro Municipal de Entidades que tengan su actividad principal en ese sector y que manifiesten, mediante acuerdo de su asamblea, su voluntad de formar parte.

- . Personas físicas elegidas por sorteo entre las que formen parte de las listas de personas interesadas e inscritas en el censo del municipio. Que serán el número de 2 personas dentro del Pleno del Consejo.
- . 2 personas de especial relevancia y representación, propuestas por Alcaldía o por cualquier persona de la Comisión de Igualdad, aprobadas por la mayoría simple de la misma.

Por cada representante miembro del Consejo deberá nombrarse un/una suplente.

5.1.5.-Todas estas representantes son miembros/as de pleno derecho del Consejo Municipal de la Igualdad, con voz y voto, excepto el secretario o secretaria que actuará con voz pero sin voto.

Artículo 6.

Cuando por los asuntos a tratar el Consejo lo estime oportuno, podrá invitar a aquellas personas o representantes que con su asesoramiento puedan contribuir al mejor logro de los fines que persigue el Consejo. Estas personas actuarán con voz pero sin voto.

Artículo 7.

Las personas representantes del Consejo, así como sus suplentes, se incorporarán al Consejo, a propuesta de las entidades, asociaciones, instituciones y grupos políticos correspondientes.

CAPÍTULO 5. FUNCIONAMIENTO

Artículo 8.

Funciones según puesto en el Consejo Municipal de la Igualdad:

1. La Presidencia.
2. La Vicepresidencia.
3. La Secretaría.

Artículo 9. El Presidente o Presidenta.

1. El Alcalde o Alcaldesa ostentará la presidencia nata; sin embargo, la presidencia efectiva podrá delegarla en el Concejál o Concejala que ostente la Presidencia de la Comisión Informativa Municipal de Igualdad.

2. Sus funciones son:

- Velar por el cumplimiento de los fines propios del Consejo y ostentar la representación del mismo.
- Convocar las sesiones del Consejo, presidir y moderar el desarrollo de los debates y suspender las sesiones por causas justificadas.
- Fijar el orden del día de las sesiones del Consejo de la Igualdad, teniendo en cuenta las peticiones que formulen sus miembros/as y en la forma establecida en el presente Estatuto.
- Disponer el cumplimiento de los acuerdos adoptados por el Consejo.
- Dirimir con su voto de calidad los empates que se produzcan en las votaciones, una vez agotada la vía del consenso.
- Elevar a los órganos municipales que correspondan las propuestas del Consejo.

Artículo 10. El Vicepresidente o la Vicepresidenta.

3. El Consejo dispondrá de un Vicepresidente o Vicepresidenta que será elegida entre los miembros del pleno derecho del Consejo.

4. Sus funciones son:

- Sustituir al Presidente o Presidenta en los supuestos de vacante, ausencia o enfermedad.
- Ejercer las funciones que expresamente le delegue el Presidente o Presidenta del Consejo.
- Colaborar estrechamente con el Presidente o Presidenta en el cumplimiento de las funciones de éste/a en el seno del Consejo.

Artículo 11. El Secretario o Secretaria del Consejo.

5. Son funciones del Secretario/a:

- Efectuar la convocatoria de las sesiones del órgano, por orden de su presidente/a, así como las citaciones de los miembros/as del mismo.
- Recibir los actos de comunicación de los miembros/as con el órgano y por tanto las notificaciones, peticiones de datos, rectificaciones o cualquiera otra clase de escritos de los que deba tener conocimiento.
- Preparar el despacho de los asuntos, redactar las actas, que serán refrendadas en las sesiones siguientes.
- Custodiar los documentos del Consejo.

- Ser interlocutor válido ante el Ayuntamiento de Villava-Atarrabia y ante el resto de los órganos consultivos del ámbito municipal en lo referente a los asuntos del área de Igualdad.

Artículo 12. Convocatoria del Consejo de la Igualdad

1. El Pleno del Consejo es el órgano de decisión y formación de la voluntad del Consejo. Está integrado por la totalidad de sus miembros/as de pleno derecho, bajo la dirección del Presidente o Presidenta, ajustándose en su funcionamiento a las normas y competencias que se establecen en este Estatuto.
2. El Consejo de la Igualdad se reunirá en sesión ordinaria, al menos, trimestralmente, y con carácter extraordinario en los siguientes casos:
 - Por decisión del Presidente o Presidenta.
 - A petición del 50% de los/as miembros/as.
3. El Consejo se constituye válidamente en primera convocatoria, cuando esté presente la mayoría absoluta del número legal de sus miembros/as. Las sesiones del Consejo serán públicas.

Si en primera convocatoria no existiera el quórum necesario, se entenderá convocada la sesión, automáticamente, treinta minutos después, siendo válida su constitución en segunda convocatoria cualquiera que sea el número de los/as asistentes. Tanto en primera como en segunda convocatoria se requiere la asistencia del/ de la Presidente/a y del Secretario/a o de quienes legalmente los sustituyan, que deberá mantenerse durante toda la sesión.

La fecha de las sesiones se fijará por el/la Presidente/a; su convocatoria, con el orden del día se formulará con diez días naturales de antelación. Las convocatorias extraordinarias se realizarán con una antelación de setenta y dos horas, mediante notificación a sus miembros/as en la que se hará constar lugar, fecha y hora de la primera y segunda convocatoria y una propuesta del orden del día.

4. Los acuerdos del Consejo se tomarán por mayoría simple de sus miembros/as. No se admitirán votos delegados.
5. Abierta la sesión del Consejo, se leerá el acta de la última sesión celebrada, para su aprobación o rectificación. El Secretario/a dará cuenta y hará constar en el acta las excusas de asistencia

que existieren y seguidamente se tratará los puntos del orden del día.

Artículo 13. Derechos y deberes de los/as miembros/as del Consejo.

1. Son derechos de los/as miembros/as del Consejo:
 - Solicitar la inclusión de los asuntos que estimen pertinentes en el orden del día de los Consejos.
 - Asistir a las reuniones que se convoquen, participar en los debates, formular ruegos y preguntas y ejercer su derecho al voto, a excepción del Secretario o Secretaria del órgano, que únicamente tendrá voz.
 - Recibir la información adecuada para cumplir debidamente las funciones que tienen asignadas.
2. Son deberes de los/as miembros/as del Consejo:
 - Asistir a las reuniones que se convoquen.
 - Abstenerse cuando los asuntos que se traten afecten a intereses particulares de las entidades que representan.
 - Guardar la confidencialidad precisa cuando la naturaleza del asunto lo requiera.

Artículo 14. Cese de los miembros del Consejo.

1. Los/as miembros/as del Consejo podrán cesar por las siguientes causas:
 - Por renuncia expresa del interesado o interesada, comunicada al órgano o entidad al que representa y a la Secretaría del Consejo.
 - Por cualquier declaración judicial que afecte a su capacidad de obrar o que lo inhabilite para el ejercicio de cualquier cargo público.
 - Por finalización del mandato de la Corporación Municipal, para los/as miembros/as de representación política.
 - Por fallecimiento, enfermedad o invalidez.
 - Por disolución de la entidad a la que representan.

DISPOSICIONES ADICIONALES.

Primera: la modificación total o parcial de estos Estatutos, así como la disolución del Consejo Municipal de la Igualdad, corresponde exclusivamente al Ayuntamiento en Pleno, oído el dictamen del Pleno del Consejo.

DISPOSICIONES FINALES.

Primera: en lo no previsto en este Estatuto, se estará a lo dispuesto en la normativa de Régimen Local y el Reglamento Marco de los Consejos Sectoriales y Territoriales.

Segunda: el presente Estatuto entrará en vigor una vez producida su aprobación definitiva por el Ayuntamiento Pleno, de conformidad con las normas legales en vigor.